

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Familiei laguntzak emateko deialdia, adingabeak udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateagatik

Udal honek, alkatearen irailaren 5eko 337/2016 Dekretuaren bidez, erabaki hau hartu du:

Familiei laguntzak emateko deialdiaren garapena onartzea, adingabeak joateagatik Aiarako udalerrriak ez, baina EAeko beste udalen batek eskaintzen dituen musika eta dantza jardueretara (deialdia 2015eko apirilaren 24ko ALHAOn, 49. zenbakian, argitaratu zen).

Deialdi honen iragarkia argitaratzea ALHAOn, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian.

– OINARRI ARAUTZAILEAK.

Laguntza hauen oinarri arautzaileak jasota daude deialdi honetan eta familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan, adingabeak joateagatik Aiarako udalerrriak ez, baina EAeko beste udalen batek eskaintzen dituen musika eta dantza jardueretara, zeina Aiarako Udalak onartu eta 2015eko apirilaren 24ko ALHAOn, 49. zenbakian, argitaratu baitzen.

– DIRULAGUNTZAREN GEHIENEO ZENBATEKOA.

Kontzeptu hau dela eta ematekoak diren laguntzen zenbatekoa ez da, guztira, 5.000,00 euro baino gehiago izango, eta 2016ko indarreko aurrekontuaren 330.480.005 partidaren kontura finantzatuko da.

– XEDEA ETA HELBURUA

Dirulaguntza honen xedea da familiei laguntzea gastuen zati bat ordaintzeko, Aiaran erroldatuta dauden adingabeak udalerrian bertan eskaintzen ez diren musika eta dantza jardueretan (sartuta daude Aiarako udalerrian jarduera hori eskaini bai, baina dirulaguntza eskaeran jasotako mailan eskaintzen ez direnak) izena emateagatik, baldin eta jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batek eskaintzen baditu (zuzenean udalek edo haien mendeko erakundeek eskainitako jarduerak).

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da Aiarako Udalak jarduera horiek ez eskaintzea eta, ostera, EAeko udalek edo haien mendeko erakunderen batek ematea.

Laguntzak norgehiagoka araubidearen bidez emango dira.

– DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BETEKIZUNAK ETA EGIAZTATZEKO MODUA.

a) Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez 6 hilabetez segidan Aiara udalerrian erroldatuta egotea. (Errolda ziurtagiria aurkeztuz egiaztatu behar da).

b) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarrekikoak egunean izatea. (Egiaztatzeko, aipatutako erakundeen egiaztagiria aurkeztuko dira edo, bestela, baimena izenpetuko da udalak berak eska dezan horiei buruzko informazioa).

c) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea. (Udalak berak egiaztatuko du hori ofizioz).

– INSTRUKZIO ETA EBAZPEN ORGANO ESKUDUNA.

Alkate lehendakariak izango du laguntzak bideratu eta ebazteko eskumena, kasuan kasuko informazio batzordearen txostena jaso ondoren.

– ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar egun naturaleko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

– EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea bost hilabetekoa izango da, udaletxean eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

Laguntzak eman edo ukatzen dituen ebazpenak administrazio bidea amaituko du eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio hura eman zuen organoari; bestela, administrazioarekiko auzi bidera jo daiteke.

– ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

– Eskatzailearen NANaren fotokopia.

– Familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradun(ar) en datuak.

– Hala badagokio, adingabe onuradunaren legezko zaintza emateko hartutako ebazpena.

– Jarduera egiteagatik udalari edo haren mendeko erakundeari ordainketa egin izana egiaztatzen duen bankuaren agiria edo, horrelakorik izan ezean, ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordainketa egina dagoela jaso behar du).

– Jarduera zein zentrotan egin den, haren jatorrizko ziurtagiria, honakoak adierazten dituen: jardueraren hasiera eta amaiera data, emandako eta hartutako orduak guztira eta jardueraren kostua.

– Beste dirulaguntza batzuen berri emateko adierazpena.

– Debekuen eraginpean ez egoteari buruzko adierazpena.

– Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiria edo eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordezi ziurtagiria eska diezaion administrazio aginpidedunari, hain zuzen, jasotzen duena egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

– Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa. Halaber, idatzita egongo da udalerrri horretan erroldatutakoek eta erroldatuta ez daudenek zein tarifa ordaindu behar duten.

– Aiara udalerrriaren errolda ziurtagiria, adierazten duena onuradunaren antzinasuna, eta onuraduna adingabea bada, baita eskatzailearena ere (aita, ama edo legezko tutorea).

– LAGUNTZEN BALORAZIO IRIZPIDEAK.

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan erroldatutakoek aplikatzen dizkien tarifaren eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifaren arteko aldearen ehuneko 100, eta gehienez jota 2.000,00 euroko laguntza eskatzaile bakoitzeko, laguntza eskatzen den urte guztietarako.

Arespalditza, 2016ko irailaren 6a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA